



Telefono bidezko identifikazio sistema berria

Datorren ostegunean, uztailak 18, telefonoz identifikatzeko era aldatuko da.

Telefono bidezko arreta pertsonalizatua erabiltzeko, aurretik, Izenpek eskainitako identifikazio telefoniko zerbitzuan alta eskatu beharko da.

Ondorengo bi sinadura sistema hauekin edonork eska dezake alta Izenpek eskainitako identifikazio telefoniko zerbitzuan:

1. [Ziurtagiri elektronikoa kualifikatuak](#) (edo aitortuak), IZENPEk eginak, edo
2. [B@kQ IZENPEren sinadura elektronikoa aurreratua](#)

Zerbitzu hau 8 karaktere numerikoko pasahitza eta 6 karaktere numerikodun identifikazio telefonikoko zenbaki batek osatzen dute. Ondorengo estekan lortu daitezke:

- [Izenpeko zerbitzu atariko identifikazio telefonikoan alta hartzeko eskaera](#)

Erantsitako gidan erakusten da zer urrats egin behar diren identifikazio telefonikoan alta eskatzeko.

- [Identifikazio telefonikoan alta eskatzeko gida \(PDF\)](#)

Erabilpena

Alta eman ondoren, pasahitza eta identifikazio telefonikoko zenbakia ditugunean, identifikazio zerbitzuak honako datuak ahoz edo telefonoaren teklatuaren bitartez sartzea eskatuko du:

- NA edo AIZ (Atzerritarren identifikazio zenbakia): edozein kasutan zenbakiak bakarrik sartuko dira.
- 8 karaktere numerikoko pasahitza
- Identifikazio telefonikoko zenbakia (6 karaktere numeriko)

Pasahitz operatiboa: iraungiko den sinadura elektronikoa

Pasahitz operatiboa sinadura elektronikoa aurreratuan oinarrituta dagoen identifikazio sistema bat da, Gipuzkoako Foru Aldundiak kudeatzen duena.

2018ko otsailaren 20an Gipuzkoako Foru Aldundiak utzi egin zion pasahitz operatiboa emateari, eta gaur egun ezin da pasahitz berririk eskatu, ezta lehendik eskuratutakoak berritu ere.

Dena den, iraungi arte, pasahitz operatiboak telefonoz identifikatzeko aukera emango du.